

BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

5150

EBAZPENA, 2025eko azaroaren 20koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Bizkaiko lurralde-ordezkararena, zeinaren bidez deklaritzen baita Savanna Power Solar 19 SLUK aurkeztutako atzera-egitea eta amaitutzat jotzen baita Arrieta, Bermeo, Fruiz, Gamiz-Fika, Meñaka, Mungia eta Zamudioko (Bizkaia) udal-mugarteetan kokatutako «Sollube Gane Parke Eolikoa» izeneko proiektuari aurretiazko administrazio-baimena emateko hasitako prozedura.

Esp.: 48-GE-Y-2023-00038.

AURREKARIAK

Lehenengoa.— 2023ko urriaren 25ean, RWE Renewables Proyecto Renovable 2 SLk aurretiazko administrazio-baimena eskatu zuen «Sollube Parke Eolikoa» egiteko Arrieta, Bermeo, Busturia eta Meñakako udal-mugarteetan (Bizkaia), maiatzaren 28ko 115/2002 Dekretuak xedatutakoaren arabera –115/2002 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan parke eolikoetako energia eolikotik energia elektrikoa ekoizten duten instalazioei baimena emateko prozedura arautzen duena—.

Bigarrena.— Dekretu horretan aurreikusitako lehia-prozesuaren ondorioetarako, iragarkia argitaratu zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2023ko abenduaren 5ean, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 2023ko azaroaren 30ean.

Hirugarrena.— Organo honek aurkeztu ziren lehia-eskaerak baloratu ondoren, Savanna Power Solar 19 SLUK aurkeztutako aurreproiektua hautatu zen, Industria Administrazioaren Bizkaiko lurralde-ordezkararen 2024ko apirilaren 9ko Ebazpenaren bidez. Ebazpen horren bidez, proiektu horretarako aurretiazko administrazio-baimena eskatzeko lehia-prozedura ebatzi zen.

Laugarrena.— 2025eko irailaren 29an, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Bizkaiko lurralde-ordezkararen 2025eko irailaren 18ko IRAGARKIA argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baitziren «Sollube Gane Parke Eolikoa» izeneko proiektuaren eta haren ebakuazio-azpiegituraren aurretiazko administrazio-baimenaren eta ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren eskaerak Bermeo, Meñaka, Arrieta, Mungia, Fruiz, Gamiz-Fika eta Zamudio udal-mugarteetan (Bizkaia). Halaber, 2025eko urriaren 1ean Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Honako hauek alegazioak aurkeztu zituzten: Eskualdeko Interes Lokalen Defentsan Uribe Naturren Bizi Elkartek, Makatzak Arratiako Ekologistak Elkartek, Zain Dezagun Urdaibai Elkartek, GUS Urdaibaiko Museoaren Proiektua Stop Herri Plataforma Elkartek, Nekatur-Landaturismo Elkartek, Enkarterrin Mendiak Aske Elkartek Ekologistak, Kattagorri Ekologista Taldeak, Guzan Hauteskunde Elkartek, Agiri Illunzar Geo-Arkeologia Elkartek, Barakaldo Naturala Elkartek, Almikeko Jai Batzordea Elkartek, Butroi Bizirik Elkartek, Retevisionek, EH Bildu Bermeok, EAJ-PNV Bermeok, EAJ-PNV Meñakak eta hainbat partikularrek.

Bosgarrena.— Jendaurreko informazioaren izapidearekin batera, kontsulta egin zitzaien eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei, oinarritzko proiektuari eta Ingurumen-inpaktuaren azterlanari buruz. Zuzenean eragindako ondasunak eta eskubideak dituzten administrazio edo erakundeek kasuan, dagokion separata bidali zen, baldintza teknikoak emateko.

Kontsulta egin zitzaien Arrieta, Bermeo, Fruiz, Gamiz-Fika, Meñaka, Mungia eta Zamudioko udalei; Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzari, Natura Ondarearen eta Klima Aldaketarekiko Egokitzapenaren Zuzendaritzari, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzari, Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzari, eta Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren Zuzendaritzari; Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatuari; Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntza eta Errepide Kudeaketako Zuzendaritzari, Kultura Zuzendaritzari, Nekazaritza Zuzendaritzari eta Ingurumen Zuzendaritzari; eta URA-Uraren Euskal Agentziari, Ihoberi, Itelazpiri, Aireko Segurtasuneko Estatu Agentziari eta Espainiako Gobernuako Telekomunikazio eta Azpiegitura Digitalen Operadoreen Zuzendariordetza Nagusiari.

Halaber, separatak bidali zitzaizkien honako hauei: i – DE Redes Eléctricas Inteligentes, S.A.U., Red Eléctrica de España, S.A.U., Enagás eta Telefónica de España, S.A. enpresei; eta ingurumen-prozeduran interesdun direnei: Ekologistak Martxan, Izate Ingurumen Elkartea eta SEO/Birdlife.

Seigarrena.— 2025eko azaroaren 17an, Savanna Power Solar 19 SLUK atzera egin du «Sollube Gane Parke Eolikoa» izeneko proiektuaren aurretiazko administrazio-baimenaren eskaeraren prozedurarekin jarraitzeko, eta espedientea amaitutzat emateko eskatu du.

Ebazpen hau honako hauetan oinarritzen da:

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.— Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza da espediente hau izapidetzeko eta ebazteko organo eskuduna, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuaren 20. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bigarrena.— Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 94. artikuluan arabera, interesdun orok atzera egin dezake beren eskaeran, edo, ordenamendu juridikoak debekatzen ez badu, uko egin diezaieke bere eskubideei.

Aipatutako lege-manuak eta oro har aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, eta ordezkaritza honetako Energia Arloak egindako proposamenarekin bat etorritik, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Bizkaiko lurralde-ordezkaritza honako hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.— Deklaratzea Savanna Power Solar 19 SLUK atzera egin duela «Sollube Gane Parke Eolikoa» izeneko proiektuaren aurretiazko administrazio-baimenaren eskaeraren prozeduran.

Bigarrena.— Prozedura hori amaitutzat jotzea eta espediente ixtea.

Hirugarrena.— Prozedurako interesdun guztiei ebazpen hau jakinaraztea.

Errekurtsoak.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkez dakioke Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Saileko Deskarbonizazio zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera.

Bilbao, 2025eko azaroaren 20a.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Bizkaiko lurralde-ordezkaria,
MARÍA JESÚS MARKAIDA URIARTE.